

## PROPOSAMENA, DONOSTIAN HIRI HONDAKINEI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA LUZATZEKO

Indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoak **148. artikuluan** ezartzen duenez, batzorde ez iraunkorrak eratu daitezke, udal talde batek proposatuta, besteak beste –eta Udalbatzak alde aurretik adostasuna emanda–, zeregin jakin baterako, zerbait ikertzeko, proposamenak egiteko edo antzeko helbururen baterako. Ez dute erabakitze ahalmenik izango.

### Justifikazioa

Joan den urtearen amaieran, gure Talde politikoak Proposamen bat aurkeztu zuen gure hiriko hondakinei buruzko Batzorde Ez Iraunkor bat osatzeko, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 148. artikuluan oinarrituta.

Batzorde horren helburua Donostiako hiri hondakinen egoera eta kudeaketa abiapuntu eta ikusmolde desberdinetatik aztertzea zen, egin diren bilkura desberdinetan beren iritzia azaltzen joan diren zenbait adituren datu, esperientzia eta iritzietan oinarrituta, betiere donostiar guztientzat zerbitzu hobea eta eraginkorragoa erdiesteko helburuz.

Batzordearen lehen bilkura gure Proposamena onartu eta handik hilabete batzuetara egin zen, aurtengo otsailean, eta bilkura horiek bederatzi hilabeteko iraupena izango zutela aurreikusten zen. Talde politikoei joan den irailaren 16a arteko epea eman zitzaion Batzorde horretan beren ondorioak azaltzeko, eta eskainitako datuen eta adierazitako iritzien emaitza benetan interesgarria dela esan daiteke.

Hala eta guztiz ere, faltan botatzen dugu aurrera egiten jarraitzea eta, are gehiago, Batzordearen barruan proposatutako gai askori irtenbide bat ematea; horrexegatik, Batzorde hori luzatzea proposatzen dugu, batzorde ez iraunkor izaten jarraituz, donostiarren interesari eragiten dieten gai garrantzitsu askotan erdibidean geratu delako, zerbitzu publiko bat delako eta beti garatzen ari diren ingurumen arloko ohitura berriei eta erantzukizunarekin loturiko gaia delako.

Kontuan eduki behar da bilkura horietarako aurreikusitako bederatzi hilabeteko epe horren arrazoia, beste batzuen artean, 2017ko Udal Aurrekontuak prestatu aurretik bertan sartu ahal izateko elementu batzuk proposatu beharra zela; eta Batzorde hori 2016ko otsailean osatu zen, proposamena 2015eko azaroan onetsi bazen ere (hiru hilabete lehenago); denbora tarte hori ederki aprobetxatu zitekeen aurrera egiten jarraitzeko, eta orain beharrezko ikusten dugu denbora hori berreskuratzea, aztertzen eta erabaki garrantzitsuak hartzen jarraitu ahal izateko.

Horrenbestez, **Talde Popularrak** honako **PROPOSAMEN** hau aurkezten du hurrengo udalbatzan azter dadin:

- Donostiako hiri hondakinei buruzko **Batzorde Ez Iraunkorraren** bilkurak **luzatzea**, gure hiriko hondakinen bilketa sistema, zentzuzko banaketa eta zerbitzuaren berezko beste ezaugarri batzuk aztertzen eta ikertzen jarraitu ahal izateko.
- Batzordearen osaketa: kide bat udal talde politiko bakoitzeko, boto haztatua emateko eskubidearekin.
- Iraupena: bederatzi hilabete.
- Bilera araubidea: hilean behin, gutxienez.

Donostian, 2016ko irailaren 8an

Miren Albistur Garmendia,  
Talde Popularraren bozeramailea.